

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4791

*HUTSEN ZUZENKETA, honako agindu honena: «Agindua, 2013ko urriaren 17koa, Ekonomia-
ren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak
eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko 2013. urteko laguntzetarako deialdia egiten duena
(Lehiatu programa), urriaren 7ko 172/2008 Dekretuaren barruan».*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artiku-
luan xedatzen denez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testua argitaratzeko agindu duten
organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esa-
nahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko
Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratzeko agin-
duko dute.

Horrelako errakuntzak aurkitu dira aipatutako aginduan (Agindua, 2013ko urriaren 17koa, Eko-
nomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak
eraldatzeko, merkaturatzeko eta sustatzeko 2013. urteko laguntzetarako deialdia egiten duena
(Lehiatu programa), urriaren 7ko 172/2008 Dekretuaren barruan). Agindu hura 2013ko urriaren 23ko
Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 203. zenbakian. Hori dela eta, zuzendu
egiten da:

– Euskarazko bertsioan, 2013/4530 (8/1) orrialdean, honela dio:

«AGINDUA, 2013ko urriaren 7koa,...».

Baina honela esan behar du:

«AGINDUA, 2013ko urriaren 17koa,...».

– Gaztelaniazko bertsioan, 2013/4530 (9/8) orrialdean, honela dio:

«...para el ejercicio 2012,...».

Baina honela esan behar du:

«...para el ejercicio 2013,...».

– Euskarazko bertsioan, 2013/4530 (8/8) orrialdean, honela dio:

«...2012an...».

Baina honela esan behar du:

«...2013an...».